



Goiz eguzkitsua zen, eta denbora geldi zegoen. Ia-ia nerabe sentitzen nintzen, neure buruaren jabe. Petrilean eserita nengoen, itsasoari bizkar emanda. Petril batean eserita nagoenean, ez dut gogoko jendeari bizkarra ematea, atzetik norbait etorri eta bultzada batez itsasora bota nazakeela hasten naiz pentsatzen eta... Tontakeria bat dirudi, baina horrek oso ondo laburbiltzen du gizadian zeinen konfiantza eskasa dudan. Beharbada nire errua da, beharbada ez da nire errua. Berdin dio, inork ez nau epaituko halako huskeria batengatik, eta nik ere ez dut oso gogoko inor epaitzea huskeria batengatik.

Goiz eguzkitsuetan, denbora ia geldi dagoela ematen duenean, petrilean esertzea gustatzen zait, eta zaharra banaiz ere, behinolako gaztetxoa, garai bateko nerabe bihurria nigan susmatu...